Sin./Fdo.: ISABEL SARRIONANDIA-IBARRA FERNANDEZ 2024-10-25
ENPRESAK SUSTATZEKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL

Sin./Fdo.: JOSEBA MIRENA MARIEZKURRENA CUESTA 2024-10-28
EKINTZAILETZA,TALENTUA ETA ENPR.LEHIKORT.BUL.ZUZ.NAG.-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIR.GEN.EMPRENDIMIENTO,TALENTO Y COMPETITIV.EMPRESARIAL

Sin./Fdo.: AINARA BASURKO URKIRI - 2024-10-28
EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2024-11-07
GZko 14.gaia onartuta - Aprobado, asunto 14) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**ERABAKIA,** Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren artean egindako lankidetzarako esparru-hitzarmenaren bigarren luzapena baimentzeko dena, BAT, B Accelerator Tower-en esparruan baterako jarduerak garatzeko.

**ACUERDO**, por el que se autoriza la segunda prórroga del convenio marco de colaboración celebrado entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el desarrollo conjunto de actuaciones en el marco de BAT, B Accelerator Tower.

## AURREKARIAK

I.-Bizkaiko Foru Aldundiaren helburua da, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bitartez, enpresa-sustapenarekin eta hazten ari diren sektoreak finkatzearekin zerikusia duten jarduera guztiak bultzatzea eta garatzea, baita lehiakortasuna hobetzea eta industria bultzatzea ere, arreta berezia jarriz Bizkaiko lehentasunezko industria-sektoreei. Sail honen funtsezko zeregina nazioarteko konexioa, merkatu eta aukera berrien irekiera eta nazioarteko erabakigune nagusiekiko lotura sustatzea da, Bizkaia aukera-lurralde gisa kokatuz, inbertsioak eta talentua erakartzeko eta Bizkaiak lurraldearentzat lehentasunezko interesa duten nazioarteko sareetan parte hartzeko. Gainera, Sailak, atxikita dituen foru-sozietate publikoekin batera, esperientzia zabala du ekintzailetzaren arloan, tokiko ekintzailetza-ekosistemaren hazkundea eta indartzea bultzatu baitu.

## ANTECEDENTES

I.- La Diputación Foral de Bizkaia, a través del Departamento de Promoción Económica, tiene como objetivo el impulso y desarrollo de todas las actividades que tengan relación con la promoción empresarial y la consolidación de sectores emergentes y en crecimiento, la mejora de la competitividad y el impulso de la industria, con especial atención a los sectores industriales prioritarios de Bizkaia. Es tarea fundamental de este departamento fomentar la conexión internacional, la apertura de nuevos mercados y oportunidades y la conexión con los principales centros de decisión internacionales, posicionando Bizkaia como territorio de oportunidades, para la atracción de inversiones y talento, así como la participación de Bizkaia en las redes internacionales de interés prioritario para el territorio. Además, el Departamento junto con las sociedades públicas forales que tiene adscritas, cuenta con una dilatada experiencia en materia de emprendimiento, impulsando el crecimiento y fortalecimiento del ecosistema local de emprendimiento.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: R6WL-N3R8-MTW8-0C05
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Egungo testuinguru sozioekonomiko globalak talentua eta ekintzailetza teknologikoa eta berritzailea ditu helburu, lurraldeen garapen ekonomikoaren abiarazle gisa. Beharrezkoa da, beraz, balio bereizgarriko proposamenak in situ egitea, tokiko ekosistemak punta-puntako ekosistemekin konektatu ahal izateko, startupen eskalagarritasuna indartuz enpresekin eta korporazioekin lankidetzan arituz (merkaturako sarbidea) eta nazioarteko erreferentziazko beste ekosistema batzuekin konektatuz (nazioarteko hazkundea).

El actual contexto socioeconómico global apunta hacia el talento y el emprendimiento tecnológico e innovador como palancas del desarrollo económico de los territorios. Es necesario, por tanto, contar in situ con propuestas de valor diferenciales, que permitan conectar los ecosistemas locales con aquellos más punteros, potenciando la escalabilidad de las startups a través de la colaboración con empresas y corporaciones (acceso al mercado) y la conexión con otros ecosistemas internacionales de referencia (crecimiento internacional).

Ekintzailetza, beraz, etengabeko helburua da edozein gizartetan, enpresak sortzea berrikuntzaren, lehiakortasunaren eta hazkundearen eragile baita. Ekintzailetzaren alde egiteak aberastasuna eta enplegua sortzeko iturri berriak identifikatzeko beharra du oinarri; iturri horiek gure lehiakortasuna eta iraunkortasuna ziurtatuko dute etorkizunean. Lurralde lehiakorra, berritzailea eta jasangarria da pertsona guztien aberastasuna, enplegua eta ongizatea ziurtatzeko oinarria.

El emprendimiento, por tanto, se configura como un objetivo constante en cualquier sociedad, dado que la creación de empresas constituye un motor de innovación, competitividad y crecimiento. La apuesta por el emprendimiento se basa en la necesidad de identificar nuevas fuentes de generación de riqueza y empleo que aseguren nuestra competitividad y sostenibilidad futuras. Un territorio competitivo, innovador y sostenible es la base para asegurar la riqueza, el empleo y el bienestar del conjunto de sus personas.

II.- Testuinguru horretan sortu zen ekintzailetzako nazioarteko zentro bat abian jartzeko ideia, teknologikoki aurreratua den ehun ekintzailea espazio bakar batean kokatzeko helburuarekin, startupak (negozioan) eta corporateak (berrikuntzaren mailan) elkarren hazkundera eramango zituzten elkarguneak bilatuz.

II.- En este contexto surgió la idea de poner en marcha un centro internacional de emprendimiento con el objetivo de ubicar en un único espacio tejido emprendedor de carácter tecnológicamente avanzado, buscando puntos de confluencia que llevaran al crecimiento mutuo de startups (en negocio) y de corporates (en su nivel innovación).

Proiektu hori gauzatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalarekin lankidetzan, BAT, B Accelerator Tower, - orduko Nazioarteko Ekintzailetza Zentroa - jarri zuen abian Bilbon. Zentro horrek bokazioa du aktiboak eta balio diferentziala indartzeko eta eskualdeko enpresa-sarearen berrikuntzan eta lehiakortasunean eskalatzeko, eta nazioarteko erreferentzia-gune gisa kokatu ditu. BAT, B Accelerator Towerrek ,beharrezko gaitasuna du startup, enpresa eta inbertitzaileak inplikatuko dituen ekintzailetza-ekosistema oso bat sortzeko beharrezkoak diren eragile guztiak biltzeko eta, aldi berean, ekosistema

Para hacer realidad este proyecto, la Diputación Foral de Bizkaia, en colaboración con el Ayuntamiento de Bilbao puso en marcha en Bilbao, BAT, B Accelerator Tower, anteriormente Centro Internacional de Emprendimiento; un centro con vocación de reforzar los activos y el valor diferencial y escalar en innovación y en la competitividad del tejido empresarial de la región, posicionándolos como polo de referencia internacional. BAT, B Accelerator Tower, tiene la capacidad necesaria para aglutinar a todos los actores necesarios para la creación de un completo ecosistema de emprendimiento que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: R6WL-N3R8-MTW8-0C05
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

hori dinamizatzeko, eragile horiek elkarrekin konektatuko dituzten eta nazioarteko lotura izango duten jarduerak eginez eta, horrela, sortutako startupak kanpora ateratzea ahalbidetuz eta erraztuz, talentu ekintzailea erakartzea eta enpresa-proiektu berritzaileen garapena bizkortzea.

implique a startups, empresas e inversores y a su vez, dinamizar dicho ecosistema, mediante la realización de actuaciones que conecten entre si a dichos actores y que tenga conexión internacional, posibilitando y facilitando la salida al exterior de las startups generadas, la atracción de talento emprendedor y la aceleración del desarrollo de proyectos empresariales innovadores.

Bai Bilboko Udalak bai Bizkaiko Foru Aldundiak badakite horrelako proiektu batek ekintzailetzaren arloan lan egiten duten gertuko eragileekin aliantzak behar zituela, munduari irekia delako eta ekintzailetza-ekosistemaren dinamizatzaile delako, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetza-prozesu bat hasteko beharra planteatzen zen, BAT, B Accelerator Tower esparruan jarduerak elkarrekin egiteko. Lankidetza hori Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenean islatu zen, B Accelerator Tower delakoaren esparruan jarduerak batera garatzeko. Hitzarmen hori 2022ko azaroaren 16an sinatu zen, eta geroago 2024ko azaroaren 16ra arte luzatu zen.

Tanto Ayuntamiento de Bilbao como Diputación Foral de Bizkaia, conscientes de que un proyecto de estas características, abierto al mundo y dinamizador del ecosistema de emprendimiento necesitaba contar con alianzas con agentes próximos que trabajan en el ámbito del emprendimiento, se plantearon la necesidad de iniciar un proceso de colaboración con el Gobierno Vasco para la realización conjunta de actividades en el marco de la BAT, B Accelerator Tower. Esta colaboración se plasmó en el convenio marco de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el desarrollo conjunto de actuaciones en el marco de B Accelerator Tower que fue firmado el 16 de noviembre de 2022 y cuya vigencia fue posteriormente prorrogada hasta el 16 de noviembre de 2024.

III.- Eusko Jaurlaritzak honako eginkizun hauek ditu, besteak beste: kultura eta balio ekintzaileak sustatzea; ekintzailetza-ekintzarako eta ekintzaileak gaitzeko prestakuntza hobetzeko neurriak garatzea; enpresa-proiektuetara, bereziki etorkizuneko potentzial handienekoetara, merkatuan sartzeko aukerak sortzea sustatzea; beste erakunde eta eragile batzuekin lankidetzan, ekimen ekintzaile berriei laguntzeko zentroen sarea garatzea; enpresa-ingurunean kultura ekintzailea sustatzeko ekimenak eta laguntza-programak bultzatzea, eta barneko eta kanpoko ekintzailetza-sistemaren irudia eta kokapena indartzeko jarduerak garatzea. Halaber, Euskadiko enpresei laguntzea trantsizio teknologiko-digitalean, soziosanitarioan eta energetiko-

III.- El Gobierno Vasco tiene entre sus funciones el fomento de la cultura y valores emprendedores, el desarrollo de medidas tendentes a mejorar la formación para la acción emprendedora y la capacitación de personas emprendedoras, la promoción de la generación de oportunidades de acceso al mercado a los proyectos empresariales especialmente a los de mayor potencial de futuro, el desarrollo en colaboración con otras instituciones y agentes implicados de una red de centros de apoyo a las nuevas iniciativas emprendedoras, el impulso de iniciativas y programas de apoyo para la promoción de la cultura emprendedora en el entorno empresarial y el desarrollo de actuaciones para el refuerzo de la imagen y el posicionamiento del sistema de emprendimiento interna y externamente, así como el apoyo a empresas de Euskadi para

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: R6WL-N3R8-MTW8-0C05
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ingurumenekoan aurrera egitea ahalbidetuko dieten proiektuak azkartzeko.

acelerar los proyectos que les permitan avanzar en las transiciones tecnológico-digital, socio-sanitaria y energético-medioambiental.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren interesen eta jarduketen lerrokatzearen froga dira honakoak: bi erakundeen parte-hartzea lankidetza ekintzailetzako erakundeen arteko hurrengo planetan, ekintzailetzarako laguntza-programen koordinazioa, inkubazio-espazioen baterako kudeaketa eta Euskadiko ekintzailetza-ekosistema indartzeko baterako jardueren garapena.

Prueba del alineamiento de intereses y actuaciones de la Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco es la participación y colaboración de ambas entidades en los sucesivos Planes Interinstitucionales de Emprendimiento, la coordinación de los programas de ayudas al emprendimiento, la cogestión de espacios de incubación y el desarrollo conjunto de actuaciones para el fortalecimiento del ecosistema de emprendimiento de Euskadi.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak aktiboki laguntzen dute ekosistema berritzaile bat garatzen eta indartzen. Izan ere, ekosistema ekintzaile eta berritzaile bien sinergiak eta osagarritasunak ahalbidetzen du startup eta enpresa bultzatzaile berriak garatzea eta indartzea esparru eta sektore berritzaileetan eta azkartzeko gaitasun handia dutenetan.

Asimismo, Gobierno Vasco y Diputación Foral de Bizkaia colaboran activamente en el desarrollo y fortalecimiento de un ecosistema innovador. De hecho, es la sinergia y complementariedad de ambos ecosistemas emprendedor e innovador lo que permite avanzar en el desarrollo y fortalecimiento de nuevas startups y empresas tractoras en ámbitos y sectores innovadores y con gran capacidad de aceleración.

V.- BAT, B Accelerator Towerren helburua da Bizkaiaren eta Euskadiren posizionamendua indartzea, nazioarteko erreferentziazko ekintzailetza-nodo gisa, enpresen sorkuntza-tasa eta horien tamaina nabarmen handitzeko, eta tokiko eta nazioarteko enpresen eta korporazioen berrikuntzan eta barne-ekintzailetzan laguntzeko. Gaur egun, munduan hobekien konektatuta dagoen berrikuntza-zentroa da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak berrikuntzaren, ekintzailetzaren eta nazioartekotzearen alde egindako apustua gauzatzen du. Izan ere, funtsezko pieza da tokiko ekosistema nazioartean konektatzeko eta sektore eta negozio berriak garatzeko, bai eta potentzial handiko teknologia-enpresak, talentua eta inbertsioa Bizkaira eta Euskadira erakartzeko eta atxikitzeko ere. Ekintzailetza eta enpresa-jarduera gauzatzeko lankidetza ekosistema berritzailearen eta ekintzailetzaren sorrera eta hazkundea sustatzeaz gain, inbertsioa erakartzen eta

IV.- BAT, B Accelerator Tower tiene el objetivo de fortalecer el posicionamiento de Bizkaia y Euskadi como un nodo de emprendimiento de referencia internacional con el fin de incrementar de manera significativa la tasa de creación de empresas y su tamaño, y de contribuir a la innovación y al intraemprendimiento de empresas y corporaciones locales e internacionales. Actualmente es el centro de innovación mejor conectado del mundo haciendo realidad la apuesta de la Diputación Foral de Bizkaia, el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Bilbao por la innovación, el emprendimiento y la internacionalización. Es una pieza fundamental para la conexión internacional del ecosistema local y el desarrollo de nuevos sectores y negocios, así como para la atracción y retención de empresas tecnológicas de alto potencial, de talento e inversión a Bizkaia y a Euskadi. La colaboración en el ejercicio de la actividad emprendedora y empresarial además de fomentar la creación y crecimiento del

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: R6WL-N3R8-MTW8-0C05
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

jarrera berritzaileak eta ekintzaileak bultzatzen ari da, bai eta nazioarteko konexioa ere.

ecosistema innovador y de emprendimiento, está atrayendo inversión y favoreciendo actitudes innovadoras y emprendedoras, así como la conexión internacional.

V.- Hitzarmena garatzeko egindako jarduerak bi alderdiak gogobetetzen ari dira. Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, hitzarmenaren zortzigarren klausulan xedatutakoari jarraiki, eta hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak 2024ko irailaren 24an egindako bileran erabakitakoaren arabera, hitzarmenaren indarraldia beste hiru (3) urtez luzatzea egokitzat jotzen dute, hau da, 2027ko azaroaren 16ra arte.

V.- Las actuaciones realizadas en desarrollo del convenio se están produciendo a satisfacción de ambas partes, por lo que tanto la Diputación Foral de Bizkaia como el Gobierno Vasco, en virtud de lo dispuesto en la cláusula octava del convenio, y de acuerdo con lo acordado por el Comité de Seguimiento del convenio en la sesión celebrada el 24 de septiembre de 2024, consideran oportuno prorrogar la vigencia del mismo tres (3) años más, es decir, hasta el 16 de noviembre de 2027.

VI.- Hitzarmena luzatzea baimentzeko organo eskuduna hitzarmena onartu zuen organoa da, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseilua, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorra onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak eta bere foru-erakunde autonomoek lankidetza-hitzarmenak egin ahal izango dituzte, edozein dela ere hitzarmenaren xedea, nazioarteko zuzenbide publikoko erakundeekin, Estatuko Administrazio orokorrarekin, Gizarte Segurantzarekin, autonomia-erkidegoekin, toki-erakundeekin, dagozkien erakundeekin, sozietate publikoekin eta, izaera juridikoa edozein dela ere, gizarte-zerbitzuen eremua xede duten erakundeekin

VI.- El órgano competente para autorizar la prórroga del convenio es el mismo órgano que lo aprobó, esto es, el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, de acuerdo con lo dispuesto en la disposición adicional quinta del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, la Diputación Foral de Bizkaia y sus Organismo Autónomos Forales podrán celebrar convenios de colaboración, cualquiera que sea su objeto, con entidades de derecho internacional público, la Administración general del Estado, la Seguridad Social, las Comunidades Autónomas, las entidades locales, los correspondientes organismos, las sociedades públicas, así como con las entidades que, independientemente de su naturaleza jurídica, tengan como objeto el ámbito de los servicios sociales.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onar dezan, honako proposamen hau aurkeztu da:

Por todo ello, se somete a la aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, la siguiente propuesta de:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: R6WL-N3R8-MTW8-0C05
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ERABAKIA

**Lehenengoa**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak BAT, B Accelerator Tower delakoaren esparruan (lehen Ekintzailetzaren Nazioarteko Zentroa esaten zitzaion) jarduerak batera garatzeko sinatutako lankidetzarako esparru-hitzarmenaren indarraldia hiru (3) urtez luzatzeko baimena ematea, haren zortzigarren klausulan xedatutakoaren arabera.

Esparru-hitzarmena 2022ko azaroaren 16an sinatu zuten alderdiek, eta, ondoren, 2024ko azaroaren 16ra arte luzatu zuten; orain, 2027ko azaroaren 16ra arte egongo da indarrean.

**Bigarrena**

2022ko azaroaren 16an sinatutako hitzarmenaren gainerako testuari bere horretan eustea, aldeek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak jasotzen baititu, inolako konpromiso ekonomikorik kuantifikatu gabe. Hitzarmen horren eta luzapenaren kopia erantsi da.

**Hirugarrena**

Hitzarmenaren luzapena Bizkaiko Foru Aldundiko diputatu nagusiak sinatzen du, eta ahalmena ematen zaio ekonomia sustatzeko foru diputatuari hitzarmena eta akordio hau gauzatzeko behar diren egintzak egiteko.

**Laugarrena**

Ekonomia Sustatzeko foru-diputatua eta Ekonomia Sustatzeko Saileko ekintzailetza, talentu eta enpresen lehiakortasuna bultzatzeko zuzendari nagusia mantentzea hitzarmenaren bosgarren klausulan

ACUERDO

**Primero**

Autorizar la prórroga de tres (3) años de la vigencia del convenio marco de colaboración suscrito entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el desarrollo conjunto de actuaciones en el marco de BAT, B Accelerator Tower, anteriormente conocido como Centro Internacional de Emprendimiento, en base a lo dispuesto en su cláusula octava.

El convenio marco fue suscrito por las partes el 16 de noviembre de 2022 y posteriormente prorrogado hasta el 16 de noviembre de 2024, prorrogándose ahora su vigencia hasta el 16 de noviembre de 2027.

**Segundo**

Mantener en sus mismos términos el resto del texto del convenio suscrito el 16 de noviembre de 2022 que recoge las obligaciones y compromisos asumidos por las partes sin que se cuantifique compromiso económico alguno. Se adjunta copia de ese convenio y de su prórroga

**Tercero**

La prórroga del convenio se suscribe por la Diputada General de la Diputación Foral de Bizkaia y se faculta a la diputada foral de promoción económica para la realización de los actos que se precisen para su ejecución, así como del presente acuerdo.

**Cuarto**

Mantener como representantes de la Diputación Foral de Bizkaia en el Comité de Seguimiento previsto en la cláusula quinta del convenio a la diputada foral de promoción económica y al director general de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: R6WL-N3R8-MTW8-0C05
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aurreikusitako Jarraipen Batzordean Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

emprendimiento, talento y competitividad empresarial del Departamento de Promoción Económica.

### Bosgarrena

Erabaki hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eta Ekonomia Sustatzeko Saileko Zerbitzu Orokorrei jakinaraztea.

### Quinto

Notificar el presente acuerdo a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y a los Servicios Generales del Departamento de Promoción Económica.

### Seigarrena

Bizkaiko Batzar Nagusiei helaraztea berrets dezaten, betiere Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 7.2b)3. artikuluan xedatutakoarekin bat.

### Sexto

Elévese a Juntas Generales de Bizkaia para su ratificación según el artículo 7.2.b)3º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Enpresen Sustatzeko Zerbitzuko Burua. / La jefatura del Servicio de Promoción Empresarial. ISABEL SARRIONANDIA-IBARRA FERNÁNDEZ

*O.E./Vº Bº*

Ekintzailetza , Talentueta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusia. / La dirección general de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial. JOSEBA MARIEZKURRENA CUESTA

***Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio / De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.***

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua / La diputada foral de Promoción Económica. / AINARA BASURKO URKIRI

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: R6WL-N3R8-MTW8-0C05
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENAREN BIGARREN LUZAPENA, BAT, B ACCELERATOR TOWER-EN ESPARRUAN JARDUERAK BATERA GARATZEKO.

SEGUNDA PRÓRROGA DEL CONVENIO MARCO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL DESARROLLO CONJUNTO DE ACTUACIONES EN EL MARCO DE BAT, B ACCELERATOR TOWER.

BILDU DIRENAK

Alde batetik Elixabete Etxanobe Landajuela Bizkaiko Ahaldun Nagusia, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenenan jarduten duena, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 1987/3 Foru Arauak emandako ahalmenak direla bide.

Bestetik, Mikel Jauregi Letemendia, Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuneko Sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean eta ordezkaritzan, Gobernu Kontseiluaren 2024ko azaroaren 14ko Erabakiak emandako baimenaren indarrez.

Alderdiek, ordezkatzen dituzten erakundeei dagozkien eta hasieran formalizatutako hitzarmenean adierazitako eskumenetan oinarrituta, beharrezko gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko hitzarmenaren bigarren luzapen-dokumentu hau formalizatzeko, BAT, B Accelerator Tower-en esparruan jarduketak batera garatzeko,

REUNIDAS

De una parte, Elixabete Etxanobe Landajuela, Diputada General de Bizkaia, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, en virtud del artículo 23 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre la Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

De otra parte, Mikel Jauregi Letemendia, Consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, en nombre y representación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en virtud de la autorización otorgada por el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 14 de noviembre de 2024.

Las partes, en base a las competencias ya indicadas en el convenio inicialmente formalizado que corresponden a las entidades que representan, se reconocen la capacidad jurídica necesaria para formalizar este documento de segunda prórroga del convenio entre la Diputacion Foral de Bizkaia y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el desarrollo conjunto de actuaciones en el marco de BAT, B Accelerator Tower, y en su virtud,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: R6WL-N3R8-MTW8-0C05
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ADIERAZTEN DUTE

I.- Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, indarrean dagoen araudiaren arabera esleituta dituzten eskumenak baliatuz eta Ekintzailetzaren Erakunde arteko Planaren esparruan, lankidetzarako esparru-hitzarmen bat sinatu zuten 2022ko azaroaren 16an, BAT, B Accelerator Tower-en esparruan jarduerak batera garatzeko. Hitzarmen honek alderdiek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak jasotzen ditu, eta ez da inolako konpromiso ekonomikorik kuantifikatzen.

II.- Hitzarmenaren zortzigarren klausulak, lehen paragrafoan, urte bateko (1) iraupena ezartzen du, bi (2) urtera luza daitekeena, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluaren 1. zenbakian ezarritakoaren arabera. Horrela, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2023ko urriaren 19an hartutako Erabakiaren arabera (gai-zerrendako 33. gaia), 2022ko azaroaren 16an sinatutako lankidetzarako esparru-hitzarmena beste urtebetez luzatu zen, hau da, 2024ko azaroaren 16ra arte.

Halaber, klausula horren bigarren paragrafoan honako hau aurreikusten da: "Hitzarmena amaitzeko aurreikusitako epea bukatu aurretik, alderdiek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea, gehienez beste lau urtez, edo azkentzea".

Bigarren paragrafo honetan xedatutakoaren arabera, eta hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak 2024ko irailaren 24ko bileran aho batez adostutako interpretazioaren arabera, posible da hitzarmenaren indarraldia beste hiru (3) urtez luzatzea, hau da, 2027ko azaroaren 16ra arte.

EXPONEN

I.-La Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco, en el ejercicio de las competencias que de acuerdo con la normativa vigente tienen atribuidas, y en el marco del Plan Interinstitucional de Emprendimiento, suscribieron el 16 de noviembre de 2022 un convenio marco de colaboración para el desarrollo conjunto de actuaciones en el marco de BAT, B Accelerator Tower. Este convenio recoge las obligaciones y compromisos asumidos por las partes sin que se cuantifique compromiso económico alguno.

II.- La cláusula octava del convenio en su primer párrafo establece para el mismo una duración de un (1) año prorrogable a dos (2) en virtud de lo establecido en el apartado 1º del artículo 49 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público. Así , y en virtud del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 19 de octubre de 2023, asunto nº 33 del Orden del Día, el convenio marco de colaboración firmado el día 16 de noviembre de 2022 fue prorrogado por un (1) año más, es decir, hasta el 16 de noviembre de 2024,

Así mismo, el párrafo segundo de dicha cláusula octava prevé que “En cualquier momento anterior a la finalización del plazo previsto para su finalización, las partes podrán acordar unánimemente su prórroga, por un período de hasta cuatro años adicionales, o su extinción.”

De acuerdo con lo dispuesto en este segundo párrafo y según la interpretación del mismo unánimemente acordada por el Comité de Seguimiento del convenio en la sesión celebrada el 24 de septiembre de 2024, es posible prorrogar nuevamente la vigencia del convenio por tres (3) años más, es decir, hasta el 16 de noviembre de 2027.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: R6WL-N3R8-MTW8-0C05
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

III.- Hitzarmenaren xede diren jarduerak bi alderdiek gustura egiten jarraitzen dutenez eta bere garaian hitzarmena formalizatzeko arrazoiak, baldintzak eta inguruabarrak eusten direnez, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak egokitzat jotzen dute hitzarmenaren indarraldia beste hiru (3) urtez luzatzea, hau da, 2027ko azaroaren 16ra arte, BAT, B Accelerator Tower Bizkaian eta Euskadin ekintzailetza-ekosistema dinamizatzeko sustapenaren funtsezko zutabe izaten jarrai dezan.

III.- Puesto que las actuaciones objeto del convenio se siguen realizando a satisfacción de ambas partes y que se mantienen también las razones, condiciones y circunstancias que en su día dieron lugar a su formalización, la Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco consideran oportuno prorrogar la vigencia del convenio tres (3) años más, es decir, hasta el 16 de noviembre de 2027, con el objetivo de que BAT, B Accelerator Tower siga constituyéndose en pilar fundamental del impulso a la dinamización del ecosistema de emprendimiento en Bizkaia y en Euskadi.

Azaldutakoaren arabera, alderdiek hitzarmenaren bigarren luzapena formalizatzen duen dokumentu hau sinatu dute, honako klausula hauen arabera:

En virtud de lo expuesto, las partes suscriben el presente documento que formaliza la segunda prórroga del convenio, de acuerdo con las siguientes

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

**Lehenengoa.-** 2022ko azaroaren 16an sinatutako hitzarmenaren zortzigarren klausula aplikatuz, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, urtebeteko (1) lehenengo luzapenaren ondoren, hitzarmenaren hasierako iraupena hiru (3) urtez luzatzea erabaki dute, hau da, 2027ko azaroaren 16ra arte.

**Primera.-** En aplicación de la cláusula octava del convenio suscrito el 16 de noviembre de 2022, Diputación Foral de Bizkaia y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, tras la primera prórroga de un (1) año, acuerdan prorrogar tres (3) años más la duración inicial del convenio, es decir, hasta el 16 de noviembre de 2027.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: R6WL-N3R8-MTW8-0C05
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

**Bigarrena**, - Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu dute BAT nazioarteko ekintzailetza-zentroaren funtzionamendurako beharrezkoak diren jarduerak garatzen jarraitzeko, 2022ko azaroaren 16an sinatutako hitzarmenean adostutakoaren arabera. Hitzarmenak bere horretan jarraitzen du, indarraldiari dagokionez izan ezik.

Eta hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute.

**Segunda**,- La Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco se comprometen a seguir desarrollando las actuaciones necesarias para el funcionamiento del centro internacional de emprendimiento, BAT, en los términos acordados en el convenio suscrito el 16 de noviembre de 2022, cuyo texto se mantiene integramente, salvo en lo relativo a su vigencia.

Y, para que conste y surta los efectos oportunos donde proceda, las partes firman el presente convenio

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: R6WL-N3R8-MTW8-0C05
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus